

Sei autobus Irizar i2ek inauguratu dute Frantziako lehen linea %100 elektrikoa

Ormaiztegin, 2016ko ekainaren 13an

Régie des Transports de Marseillaren (RTM) eskutik joan den ekainaren 6an Marseillan Frantziako lehen linea %100 elektrikoa inauguratu zen.

Irizarreko ordezkariak gain ekitaldian izan ziren Marseillako alkate Gaudin Jauna, Administrazio Kontseiluko Lehendakaria Tomasini jauna eta RTMko zuzendaria eta albokoa Rebut eta Augier jaunak, hurrenez hurren.

Sei Irizar i2eak Marseillako 82. Linea enblematikoan hasi ziren zerbitzua ematen, Canebière eta Euromed lotzen dituen linean, eta ibilbidean zehar MPMko egoitza eta Métropole-ena, Portu zaharra, MuCEM eta Euroméditerranée negozio auzo berria zeharkatzen ditu.

Sei autobus Irizar i2e horiek konfigurazio estandarra dute, RTMko beste ibilgailu guztiek bezalaxe. Zoru baxu jarraitua dute, bi ate bikoitz eta arranpa elektrikoa erdiko atean. Barruan 77 pertsonarentzako tokiak dute, 27 eserita, PMR 1 eta 51 zutik. So-Nickel 16 bateria dituzte.

Sei ibilgailu hauek RTMko ibilgailuei gehitzea 2015eko bi hilabetetan Marseillako konpainiarekin egindako proben ondorio da. Izan ere, esperientzia eta emaitzak onak izan ziren gaitasun teknikoari, instalazioen errendimenduari eta gidari nahiz bidaiarientzat lortutako erosotasun mailari dagokionez.

Gainera, Irizarrek garajeen sistema inteligente bat instalatu du sei autobusen karga optimizatzeko.

RTM (Régie des transports de Marseille)

Autobus hauen zerbitzua martxan jartzea gertakari historikoa da eta RTMk 2006an abiatutako konpromisoaren eta irtenbide bilaketaren markoan txertatzen da. Helburua da herritarrei mugikortasun iraunkorrek eta bizi kalitate handiko irtenbideak ematea, eta era berean, garraioak ingurumenean eta soinu emisioetan duen eragina murriztera bideratutako teknologia fidagarriak, gidari eta bidaiariei erosotasuna ekartzeko.

Benetako iraultza da. Zarata eta kutsadura maila arintzearen aldeko apustua da. Beste linea askotan ere lan egin ahal izango da. Azpimarratu nahi dut dagoeneko marseillarren % 63 modu arinean garraiatzen ditugula, Elektrizitate bidez, tranbian edo metroan. Gure autobus sarea gutxien kutsatzen duenetakoa da Frantzian. - Maxime Tommasini, RTMko Administrazio Kontseiluko Lehendakaria.

Irizar i2e, Irizar Taldearen autobus %100 elektrikoa

Europar teknologiarekin garatu eta fabrikatua eta bitzta zikloaren ikuspuntuarekin, Irizar i2e Taldeak berrikuntzaren alde egiten duen apustu estrategikoaren emaitza da, hiri barruko garraio iraunkorren erreferente bihurtzeko helburua baitu. Irizar Taldearen ibilgailu %100 elektrikoak 12 eta 16 ordu arteko autonomia bermatzen du (240 km arte) eta efizientzia energetiko handiena, kontsumo txikiena eta bitzta amaieraren kudeaketa onena lortzeko pentsatuta dago.

Irizar i2eak hiri mugikortasunari irtenbide jasangarria eta ekoefizientea eskaintzen du, gaur egungo eta etorkizuneko beharrei erantzuten diena. I2e autobusak karbono arrasto oso txikia uzten du, 8,45 gr CO₂ eq/km.p (egindako kilometroak/pertsonako) Ohiko autobus batekin alderatuz gero 800 tona CO₂ isurtzea saihesten da autobusaren bitzta zikloan zehar.

Hector Olabe Irizar e-mobilityko Zuzendariak Irizar Taldearen poza adierazi zuen RTM operadorearen eta Marseillako biztanleen mugarri historiko honetan parte hartu izanagatik. *"Elkarrekin lan egin dugu eta lortu dugu Marseillako orografiara eta herritarren eskaera eta beharretara egokitzen den autobusa fabrikatzea, eta gainera, RTMri karga estazioak eta garajeen kargarako baldintzak/murrizketak eraginkortasunez kudeatzeko sistema inteligente bat ezartzea. Autobus bakoitzaren karga beharrak identifikatzen ditu eta behar duen energia optimizatzen du, eta beraz, autobus flotak elektrifikatzea ahalbidetzen du."*